

# Ernesto Neto

Naraman gorputza

GUGGENHEIM BILBAO

SARRERA.....	3
ELKARRIZKETA ERNESTO NETO-REKIN .....	6

# SARRERA

PETRA JOOS

“Jaio, nolabait esatearren, behin-behinean jaiotzen gara, edozein tokitan; gero pitinka-pitinka joaten gara gure sorlekua osatzen, geroago, eta egunetik egunera behin betikoago, jaiotzeko.”

Rainer Maria Rilke, *Gutun milandarrak*, 1921-1926

Kritikak Ernesto Neto-ren obrako alderdi berezko eta iradokitzaile guztiak jorratu eta nabarmenarazi ditu, interes antropologikotik, sozialetik edo komunikatibotik gizakiaren gorestiaz egin sakontze laneraino helduz. Netoren eskulturak zeharkatuak izateko sortu dira, habitatuak izateko, sentitzeko, are usaintzeko ere, eta horrela ikusleak bere gorputzarekin berarekin esperimenta dezake, bere zentzumenekin eta bere adimenearekin, artelanaren bitartez. Netok esana baita: «Ditugun alderdi komunak garrantzitsuagoak dira desberdintzen gaituena baino. Gizateriaren egoera, bizi ditugun gauzen tenperatura eztabaidatzea interesatzen zait. Gauzen igarotzea. Lengoia». Horregatik, giza harremanen alderdi komunak ikertzen ditu, sentsualtasuna eta gorpuztasuna mami dituzten eskulturen bitartez.

Guggenheim Bilbao Museoaren proiektua ziurtasun horretatik jaio da, ibilbide artistiko berezi eta paregabe baten aintzatespenetik, baina baita bidean elkarrekin segitu nahi izateko intuiziotik ere, nahiz jakin ez zer erritmo edo sekuentzia izango dugun eraikitze-sinbiosi batean konfiantza jarri ahal izatearren ezinbestekoak diren lehen pausoetan. Eraikitzeak ez du «ezetzik» onartzen, «baina» baizik, edo baita galderen azalpena eta erantzuna ere. Harremanak ez dira aurrez ezartzen, jaio egiten dira, eta hain zuzen ere bestearen gaineko ezagutzarik ez horretatik abiatuta hasten gara benetan sakontzen; eta horrek, azkenean, begirada berarekin ibilitako tokiaren irmotasuna du emaitza.

Erakusketa hau Ernesto Netorekiko lankidetzaren estuan garatu da, eta haren obren aukera zabal bat biltzen du, 1990eko hamarkadatik gaur egun arte bitarteko bat; obra horietako batzuk berrituratu egin dira, artistaren ideia eta desira berrien eta Museoko espazio arkitektonikoen arabera.

Ibilbide bat da erakusketa. Horretan, artistaren esentzia eta lan guztia bizi daiteke, usainezko, kolorezko, emoziozko, lengoaiatzko eta zentzumenezko gertaeraz osatu bizipena alegia. Netorentzat, erakusketa bat poesiarako lekua da, bisitariak egunerokotik ihes egin dezakeen lekua: «Une oro informazioa jasotzen dugu, baina hemen pentsatzeari uztea nahi dut. Artean babestea. Uste dut ez pentsatzea ona dela, bizitzatik zuzenean arnasa hartzea baita». Esperientziaren intentsitateak orduantxe bereganatzen du, hain zuzen ere, dentsitatea eta esangura. Bidaia Museoko Atrioan hasten da, eta bigarren solairuan zehar segitzen du. Areto bakoitzak esperientzia desberdina eskaintzen dio ikusleari, eta erritmo desberdina eskatzen du, bai behaketzarako bai interakziorako izan. Espazio horien azpian den kontzeptua, espazioak elkarrekin konektatzen dituen, zera da, natura dela giza existentziaren eta artearen maisua. Erakusketan zeharreko ibilbidean zehar, bisitaria era desberdinez hurbilduko da obretara, eta gorputza paisaia anitz bihurtzen zaiola ikusiko du.

Artistak aukera ematen du obra gehienekiko interakzioan jarduteko, igaroak, sentituak edo ukituak izateko sortuak baitira, baina, aldi berean, giza gorputza bezalaxe, oso hauskorak dira eta sentsibilitaterik eta fintasunik handienez tratatu behar dira. Horregatik, areto jakin batzuetarako sarrera mugatu egingo da obrekiko esperientziarik onena eta gozamen gorena bermatzearen: une barne-barnekoa izango baita batzuetan, eta lotura eta truke kolektiboa beste batzuetan.

Ernesto Netoren obrak askatasunean, sentimenduan eta espontaneotasunean oinarrituta sortu dira, urrunduz inolaz ere *Aufklärung* kontzeptutik, erromantiko alemaniarrek berek jada gainditu beharra sentitzen zuten arrazionalismo iluministatik. Arrazionaltasun "klasikoarekiko" oposizioa dira, jakinduria, esperientzia eta bizipenezkoa, Rainer Maria Rilke deskribatzen duen moduan. Ernesto Netok betidanik arnastu ditu Rio de Janeiroko kaleetako azoka txikiak baina, pitinka-pitinka, bere behin betiko jaiotzaren lekua osatu du, alde batean lagata munduaren ikuspegi fotografikoa, eta estreinako aldia balu bezala ikusiz mundu hori. Gorputzak eraman egiten du Neto, irudikatzeraz zehazki, eta honek dagoeneko ez du ametsik egiten, esperimentatu egiten du. Sustraiak beti beste toki batean ditu. Netok, bere mundua sartzeko, nahikoa du motxila, eta planetako edozein txokotara eraman dezake, bertan zabalduko baitu material delikatu baina aldi berean eraldagarriak baliaturik; eta eskuz lantzen dituelarik, eta horrexegatik hain justu, material horiek gertaerarako aukera uzten dute. Ernesto Netoren lana printzipio tropikalari egin erreferentzia da, bat egina bera erromantiko alemaniarren poesia unibertsalaren printzipioarekin, horrek osasun transzendentea eraikitzeke arte nagusizat erreibindikatzen baitzuen poesia. Artistak honakoa diosku:

“Basoan sartzen garenean, ez dugu paisaia batean gaudelako irudipenik. Paisaia, guretzat, huts ideia bat, hondamendi ideia bat da. Ez da, baina, egia. Naturan gaudenean gu geu ere paisaiaren parte gara, eta paisaia horretan ezin konta ahala gauza gertatzen dira aldi berean. Horrela da, behintzat, Brasilgo oihanetan, landareak elkarren ondoan hazten baitira, oso sinbiosi indartsu eta erlazio *mutualista* batez, eta hori izugarri probetxugarria da giza bizitzarako”<sup>1</sup>.

Behin betiko jaiotzearen bide horretan, Ernesto Netok Brasil iparraldeko, Amazonaseko kaxinawa —edo *huni kuin*— indigenen ospakizun batekin egin du topo; ospakizuna erritu bat da, gau osoa irauten du, eta naturarekin bat egiteko eta harengandik ikasteko desira aspaldi-aspaldiko bati erantzuten dio. Horretarako aiahuaska erabiltzen dute, Amazoniako herri natiboen medikuntza edo erlijio errituetan eta medikuntza tradizionalan erabili ohi den landarea. Prozesu terapeutiko jakin batzuetan eta nork bere burua ezagutzekeotan halako erabilgarritasun bat baduen substantzia bat da, eta mundu osoko medikuak, farmakologoak eta psikiatrak aspaldidanik ari dira aztertzen. Artistak dioen moduan:

«Landare psikoaktibo honek botere espiritual suerte bat du gu ospakizunarekin lotzeko. Festen, dantzaren, inauteriaren aldekoa naiz erabat. Diberti gaitzen, goza dezagun unea, bizi dezagun oraina —nire iritziz oso garrantzitsua baita—, erruduntasunik gabe. Baina erritual horiek espiritualtasunagatik dira desberdinak: anaitasuna dago, senidetetasuna, baina baita bakardadea ere. Errituak aukera ematen du, gainera, egiaz urrun dauden oso hurbileko pertsonetikiko lotura ezartzeko.

Harrigarria da, *nixi pae* (aiahuaska) edaten dugu, gure organismoak digeritu egiten du eta beste esfera espiritual batean sartzen gara, nahiz sorburua gure geure gorputzean dagoen beti: gauza material bat da, osagai fisikoa du, eta, esan dezagun, sentsazioaren eta bibrazioaren artean kokatzen gaitu. Natibo amerindiarrentzat dena da sakratua, guzti-guztia. Landareak eta landaretza sakratuak dira, sua sakratua da, eta baita airea ere, dena da sakratua! Errituak ospatzen dituztenean musika dago, kantuak eta dantzak daude; anaitasun giroa ere sortzen da, halako batean partaideak elkarri lotzen zaizkio, *eskuak emanez...* Sakratutasunari dagokionez, ongi ireki behar ditugu begiak. Telebista ikusten segi dezakegu, eta inora ez garamatzaten gauza pila bat egiten, noski. Gurea da erabakia. Jakintza nonahikoa da. Landare-munduak erakutsi egiten digu: huni kuin herriak dio ezen norbaitek aiahuaska edaten duenean —hosto eta liana nahasketa bat da— lotura bat ezartzen duela landaretzarekin, eta egin behar duena esaten hasten zaizkiola landareak. Jakinduria, beraz, lurretik dator. Hain dut biziki sentitzen!<sup>2</sup>.

Ernesto Neto *Homo sapiens* izateko gaitasuna mantentzeko garrantziaren gaineko gogoeta eragiten digu.

Allegra.

[Itzultzailea: Luis M<sup>a</sup> Larrañaga]

## O h a r r a k

1. Saiakera honetako ohar guztiak egileak artistarekin izandako elkarrizketetatik datoz (2013) [itzuli]
2. Saiakera honetako ohar guztiak egileak artistarekin izandako elkarrizketetatik datoz (2013) [itzuli]

# ELKARRIZKETA ERNESTO NETO-REKIN

PETRA JOOS

**Petra Joos:** Museoko arkitekturaz hitz egin dezagun. Azken egunotako bisitan zehar, eraikineko barne zein kanpo espazioak esploratu dituzu. Gaur bertan eraikinaren estalkira igo gara, forma arkitektonikoez biltzen zaituzten, benetan ukitzen zaituzten lekura. Atzo esan zenuen ez zarela oso artista ortodoxoa, beti urrun zaudela “grabititate zentroetatik”. Ez al duzu uste arkitektura hori ere, nolabait, “deszentratutzat” jo genezakeela? Izan ere arkitektura hori guztia mugimendua da, eta egiaz ez dago zentrorik, erdigunerik.

**Ernesto Neto:** Ez nago oso seguru arkitekturak berez zentrorik, erdigunerik ez ote duen; kontua da Atrioa ez dela erdigune konbentzionala. Lore baten nukleoarekin aldera genezake, korolarekin, petaloak inguruan proiektatzen zaizkiola. Baina nire irudimenean, nire marrazkian, Museoko bigarren solairuko plano hartzen dudanean gogoan, egiaz ikusten dudana erlea da, intsektu hegalaria bat: Atrioa burua izango litzateke, galeria klasikoek gorputza osatuko lukete, 208 eta 209 galeriek bi hegal emango lizkiokete eta, azkenik, buru gainean dauden areto horiek antena suerte bat izango genituzke. Nire iritziz analogia interesgarria da, zeren eta intsektu batzuk oso era bitxian mugitzen baitira airean. Zientzialariek aurkitu dute animalia horiek oso ikusmen bizkorra dutela, eta gure mugimendua kamera geldoan bezala ikusten dituztela, denbora poliki igaroko balitzaie bezala, guretzat baino nabarmen polikiago inolaz ere; hau da, intsektu bat eskuz harrapatu nahi dugunean hark mugimendu izugarri motel bat ikusten du, osatzeko denbora luzea behar duen bat, gure ikuspegitik segundo-zatikari bat besterik ez dirauen arren. Beraz, hegoak astintzen dituen mugimendu iheskor bat iruditzen zaigu, baina seguruenik haren pertzepzioan moteldu egiten da, eta berak askoz hobeto ikusten du, noski.

Laburbilduz, Museoko arkitektura intsektu-egitura moduko bat izan liteke. Sekula ez dut horrelakorik pentsatu gaur arte, planoak berrikusi eta lantzen hasi naizen arte, aldi berean denborari eta intsektuei buruz irakurri nuen informazio artikulu bat gogoratzen nuela. Ikuspegi interesgarria da; arkitekturako mugimendua oso bizkorra dela iruditzen zaigu, baina agian intsektu baten ikuspegitik ez da hainbestearinokoa izango.

Beraz, gure ikusmena haienaren antzekoa izango balitz, askoz gaitasun handiagoa izango genuke arkitekturako mugimendua asimilatzeke, gureganatzeko.

Atrioaren aurretiko bista zoragarria da, zeren eta ematen baitu plano desberdin asko daudela, batzuk besteen gainean jarrita, harreman sinbiotiko batez funtzionatzen dutela. Oso gauza tropikala da, nolabait esatearren, arkitektura tropikal moduko bat. Herrialde tropikalak intsektuz josiak daude, horra beste kointzidentzia bat.

Benetan, 208 galeriako igeltsuzko paretak neurri batean kentzea gustatuko litzaidake. Uste dut horren areto handi eta zabalak, estilo organikokoak, bikainak direla, baina oso harrigarria izan liteke, era berean, murruek atzean dagoen egitura bistaratzea. Beharbada asmamena piztuko luke paretan parte bat kentzeak, egitura hori agerian lagaz alegia ikusleak azter dezan, izugarri interesatzen zaizkit-eta egiturak eta gardentasuna. Eta eraikin honetan

beira ugari den arren, museo-espazioak opako iruditzen zaizkit oraindik ere, titanioa alde batean eta harri-horma bestean.

**PJ:** Arkitektura natura bihurtzen da. Amsterdamgo zoologikoak *Natura artis magistra* goitizena du, hots, "Natura artearen maisua da". Atentzioa ematen du, zeharo, zora joan eta sarreraren esakune hori irakurtzeak.

**EN:** Bada, ez dakit beste ezer gehitzerik dudan, natura *garela* esateaz aparte. Denok baikara. Funtsezko ideia bat da, zeren eta natura bereizi egin ohi baitugu geuregandik; kanpoan kokatzen dugu, hirugarren pertsonan, baina natura ez dagokio hirugarren pertsona bati, lehenari baizik, *gure geure barnean* dago. Mundu osoa natura delako konbentzimendua ere badut. Uste dut zubi hori natura dela, autoak, gizakiak sortutako gauza guztiak, naturaren parte direla. Eta matematikak, fisikak eta kimikak hartan dute sorburua. Erabiltzen ditugun ia-ia material guztiak lurretik datoz, gure lur sakratutik datoz, Ama Lur maitetik; horregatik, erabat sinesten dut naturaren nonahikotasunean, eta natura gure maisua dela uste dut. Naturarengandik ikasten dugu, zalantzarik batere ez horren inguruan. Bertan dago eta bertan laburbiltzen da guztia. Seguru nago egunen batean harmonia beteko giroan biziko garela mundu naturalarekin, gai izango garela zuhaitzen DNArekin lan egiteko, eta aurrerantzean ez dugula horiek moztu beharrik izango etxeak egiteko, zeren eta gure esku-hartzearekin etxeak bere kasa egiteko moduan haziko baitira. Agian hain egongo gara teknologia aldetik aurreratuta ezen basoetara itzultzea eta, berriro ere, naturarekin bat eginik bizi izatea erabakiko baitugu. Edonola ere, jakintza ere lurrari dario.

Hain dut biziki sentitzen! Zuhaitz bat ikusten dudanean sustraiak lurpean dituela, sustrai horiek lurreko jakinduria guztia xurgatuko balute bezala sentitzen dut. Eta noski, sustraiak lurreko mantenuak jasotzen dituztela adaburuak, bere aldetik, zerutik, kosmosetik, zeinahi lekutatik datorren argia harrapatzen du. Konbinazio bat dago argi horren eta uraren artean. Landare edo zuhaitz bat zeharo gauza harrigarria da. Zuhaitzaren atal bat lurratzalaren azpian ezkututzen da, erabateko iluntasunean, bestea, berriz, zerura begira dago, eta argia jasotzen duela fotosintesia egiten du. Adaburuaren eta sustraiaren artean, biak lotzen dituen enborra dago; beraz, elementu apartekoa dugu aurrean, elementu sinplea eta konplexua aldi berean.

**PJ:** Erakusketaren titulua, *Naraman gorputza*, zure obretako baten aipamena baino gehiago da...

**EN:** Denok dugu gorputz bat, eta gorputz horrek gida-lana egiten digu. Benetan, ez dut gogoaren eta gorputzaren arteko bereizketan sinesten. Iritzia dut gogo gorputz barnean kokatzen dela, eta gorputzak gobernatzen gaituela. Gorputz-izate bakoitzean bizitza bat ari zaigu taupaka, memoria ere bertan dago, eta fantasia, paranoia, psikea eta beste guztia; "o corpo que me leva" ["naraman gorputza", portugesez] diodanean, segurutzat jotzen dut bi interpretazio posible daudela: lo hartu aurretik, pentsamendu kontzienteei ihes egiten diegun une horretan, sentitzen dugu gure gorputzak arrastan garamatzala eta, lo gaudenean, sentitzen dugu gorputzak Morfeoren herrialdera, ametsen lurraldera garoatzala, egunean zehar izan ditugun gorabehera guztietatik indarberritzearren.

Alabaina, *corpo que me leva* hori gorputz kolektiboa ere izan daiteke, batek manifestazio batean parte hartu eta zehatz ez dakienean ez non dagoen ez norantz doan. Uste dut bakar-bakarrik nora goazen ez dakigunean, gauzek

norantz garamatzaten ez dakigunean izan gaitzkeela benetan libre, baina, hala eta guztiz ere, *ildo nagusiari segitzen diogu* eta *garamatzan gorputzarekiko* konfiantza dugu. Duela urtebete inguru, erakusketa hau aurkezteko gonbidapena egin zenidan. Hona otsailean etorri nintzen, eta antolatzea erabaki genuen. Oraindik ez dakigu zehatz non ari garen mugitzen, baina une honetan duela sei hilabete baino askoz hobeto ezagutzen dugu jada proiektua. Eta erakusketa inauguratzen denean, ez dakigu zer bide hartuko duen, garamatzan gorputz horren antzekoa izango da... Horrenbestez, gorputz kolektibo baten, espiritu baten ideia da “naraman gorputza” hitzen azpian den ideia, bizitza lengoaiaren bitartez azaltzeko ahalegin bat.

Orain gutxi lagun bat hil zitzaidan. Haren gorputz geldoa ikusi nuen, kutxa batean sartua, hilobiratzen ari zirela. Bazirudien bizitzak ihes egin ziola, gorpua tokian bertan lagata, objektu immateriala balitz bezala; baina, egiaz, organismoak funtzionatzeari utzi ziolako abandonatu zuen bizitzak. Orduan barrena hartu zidan sentimendua zera izan zen, bizitza hura amaitua zela eta, hala eta guztiz, bizitza gorpuzdun bat sorrarazten ari zen espiritualtasunak zirauela.

**PJ:** Esperientzia gure gorputzean oinarritzen dela uste al duzu?

**EN:** Bai, uste dut esperientziak gorputzaren ekintzari erantzuten diola: gorputzak garamatzanean, guk esperimendu egiten dugu hori.

**PJ:** Eta esperientzia bera ere gorputza al da?

**EN:** Bai gai interesgarria! Ez dakit esperientzia berez gorputza den; nik zera esango nuke, esperientzia zenbait *gorputzez* osatua dela. Adibidez, arrozez beteriko zakua den eskultura bat hartzen badugu eta arrozari lurrera erortzen uzten badiogu, esperientzia izango da, zalantzarik gabe. Gure gorputz fisikoa dugu, eskulturaren gorputza, lurraren gorputza eta grabitatearena ere badugu; arroza isurtzen dugu eta, hori egitean, zerbait gertatzen da. Beharbada guk osoro sentituko dugu esperientzia, baina esperientzia hori sorrarazi duena gure gorputza da. Abstrakzio baten aurrean gaude; ez dut uste, ordea, gure gorputzetik kanpo abstrakzio hori existitzen denik. Ez nator batere bat Platonen kontzeptuekin, hark baitzioen ideiak arinak eta zoragarriak direla, eta gorputza, aldiz, astuna eta lotsakorra. Ez, nik diot itzela dela pertsonok gorputza edukitzea, eta bene-benetan uste dut gorputza dudala nire ideien eroale. Esperientzia bat bizi dugunean, konbentziturata nago norberak pertsonalki bereganatzen eta helarazten duela hori. Esperientzia hori elkarrekin baldin badugu, agian egunen batean gogoratuko duzu bizipen zehatz hori partekatu genuela, eta elkarriketa hau izango duzu gogoan; eta nik neuk ere gogoratuko dut, agian, egunen batean; baina zalantza gabea zera dugu, zuk gauza batzuk gogoratuko dituzula eta nire oroimenak, berriz, beste batzuk aukeratuko dituela. Dena dela, esperientzia horretatik guk biok gogoratzen duguna gure gorputzetatik aterako da. Barnean ditugun zirkuituek egingo dituzte posible oroitzapenak. Gogoratzea prozesu espirituala da; ez du, baina, esan nahi espiritualtasuna gauza arrotza denik gure gorputzentzat. Nire gorputza beste izaki batzuen gorputzarekin komunika daiteke, edo naturaren gorputzarekin egoera mistiko batean; horregatik, gorputz guztiak elkarri konektatuak daudela uste dut.



**PJ:** Erakusketan bada gorputz- eta natura-kontzeptuarekin lotua dagoela dirudien galeria bat, 206 galeria zehazki.

**EN:** Esan dudana bezala, natura gara. Natura gutako bakoitzaren barnean dago. Gure gorputza paisaia bat da. Nik paisaiatzat ulertzen dut nire gorputza. Hiru bilioi zelulaz forratuak gaude, horiek guztiek gure DNA dute, eta horiez gain beste mila bilioi zelula ditugu DNA arrotzarekin, bakterioak gehienak, eta horiekin bizi beste aukerarik ez dugu. Beraz, gure organismoan oso sinbiosi aktiboa gertatzen da. Giza gorputza neurri itzeleko paisaia da. Eta bizia bor-bor ari da bertan; beraz, esan dezakegu ez gaudela bakarrik. Eta horrek zenbait gauza eragiten ditu. Esate baterako, nire lanak horrelako asoziazioak islatu nahi ditu aspaldidanik, nire lanean ahalegina egiten dut gorputzaren eta paisaiaren arteko jarraitutasuna erakusteko, hori geure buruaz eta geure inguruaz hitz egitearen pareko baita. Baina paisaia horren barnean mantentzen gara beti, eta paisaia, bere aldetik, gure erraieran bizi da.

**PJ:** Zuk oso esperientzia luzea duzu publikoa zure obrekiko harremanetan jartzeko unean. Era guztietako erreakzioak ikusiko zenituen, nik uste: plazera eta alaitasuna dira nagusi, baina mingarria ere izan daiteke.

**EN:** Horrela da, bai, horixe delako gaur egun bizi garen gizartean esperimendatzen duguna. Ondo dakizun moduan, nire obretako asko izugarri hauskorak dira. Nire lanak, beste ezeren aurretik, elkarrekiko harremanak jorrotzen ditu; pieza bakoitzak hurrengoa ukitzen du. Obra ukitzea posible izateko ideia hori obran bertan gauzatzen da objektiboki. Nire sorkariek ez dute identitate zehazturik; horietan dena dago elkarrekiko erlazioan. Ezer ez da isolatua geratzen. Zati guztiak, alderdi guztiak beste batzuekin lot daitezke edozein unetan, aldi baterako konbinazioak dira.

Eta lanetako baten osagaiak askatzen direnean, beste zerbait bilakatzen dira. Gaur egun gure gizartean ikusten duguna da jendeak oso erreakzio desberdinak izaten dituela gauzen aurrean, eta hori bikaina da. Gizakiok erreakzio askotarikoak izan beharko genituzke estimulu berrien aurrean, nik uste, baina pertsona batzuek ez dakite ondo nola aurre egin askatasunari. Azken batean, artea ukiezina da, ikusia izateko pentsatu den eta ukitu ezin dugun zerbait, babestu beharra dago eta. Egia da, halaber, artelanak ukitzea eragozteko politika hori haiei balioa emateko modu bat dela. Gauza bat zenbat eta ukiezinagoa izan, hainbat eta garestiagoa, ezkutukoagoa, are ulertezinagoa ere. Halako lilura bat eragiten du gizartean eta, zalantzarik gabe, autorearen egoa puzten du. Nik kontrako premiaz egiten dut lan. Egoaren deflazioaz egiten dut lan, egoa disolbatu nahi dut. Eta, noski, finantza-alderdian behintzat hori ez da gaur egungo mundua mugitzen ari den norabidea. Baina, gure munduak hartu duen norabidea ote egokiena akaso? Zalantza handiak ditut.

**PJ:** Pertsona askok eta askok uste dute gizarteak aldatu egin behar duela. Izan ere, egiaz, naturara itzultzeko zure ideia hain orokortu horrek, janari organiko horrek guztiak, elikagai ekologikoek, zerikusirik ez dute batere osasunarekin, beste gauza batzuekin baizik. Ez dut uste mediku batek inoiz esango digunik janari organikoa erosteko. Hori norberak bat-batean egiteko sentitzen duen bultzada da, behar bat balitz bezala, egarriak edatera zaramatzanean bezala.

**EN:** [Barrez] Bai, egarriak gaude. Esan duzuna interesgarria da, zeren eta, nire iritziz, gure garaiaren ahotsa baita. Mundu guztiak du aldatu behar dugulako kontzientzia; guk, den-denok, aldatu behar dugulakoa. Alabaina, inork ez

daki, zehatz, zer aldaketa behar diren. Intuizio partekatua da, batzuek eta besteek argia egiten dute, gutxi gorabehera, horrek hartu beharko lukeen norabidearen gainean, inork jakin ez, ordea, nork botako duen lehen harria, ulertzen didazu. Nork hartuko du ekimena? Nondik hasiko gara? Nola gertatuko da? Jendea beldurtu egiten da ideia berri bati segitzeko unean, mende eta erdi baino gutxiagoko denboran gertatu den hondamendi pila itzelagatik. Dena dela, berriro diot, denok dakigu aldatu beharra dugula. Seguru nago aldaketak iritsiko direla, are gehiago esango dut: uste dut gazteen eskutik iritsiko direla. Hurrengo belaunaldiak izango dira jauzi handi orok behar duen indarra metatuko dutenak. Eta besteok, nik uste, behar bezain zentzudun jokatu beharko dugu, haiei entzun eta laguntza ematearren. Esperientzia dugulako, eta baita jakintza ere, baina bultzatzaileak ez gara gu izango. Berrogeita bederlatzi urte bete ditut dagoeneko, ez dut beraz uste ni edo nire adineko jendea izango garenik aldaketaren buru. Hala eta guztiz, espazio bat sor dezakegu, atzetik datozenei lana erraztearren, eta horretan ari gara lanean oraintxe bertan, nik uste. Jakin badakit, ondo jakin ere, egin behar dudak zerbait dela, eta lanari ekin diot dagoeneko. Ez dut hitzez azaltzeko ahaleginik egiten. Eta oso-osorik ulertzeko ahaleginik ere ez dut egiten. Lortu nahi dudak bakarra aurrera segitzea da, eta horrelako obrak egiten jarraitzea, egunen batean agian norbait gai izango delako horiek interpretatzeko. Horixe nire konbentzimendua, eta horixe, halaber, honaino, Bilboraino, ekarri nauena: gauza eraginkorren bat egitea eta ideia horiei guztiei itxura ematea. Ekinean jarraitu, ez dut besterik nahi. Oraindik egiteko gauza asko eta asko dauzkak, noski, eta asko ari naiz ikasten. Azken urte, aste eta hilabeteetan asko ikasi dut, izugarri. Nahasgarri samarra ere gertatzen da, inoiz ez baitut zehatz jakitea lortzen non nagoen edo norantz noan, bide zuzena aukeratu dudak ala ez. Alabaina, ezin diogu aurrera egiteari utzi. Geure buruarengan *sinetsi* behar dugu, eta geure jarreraren gaineko gogoeta egiten saiatu. Sendaketa gure jarreraren datza beste inolako faktoretan baino gehiago. Horixe entzun nion, behintzat, duela egun batzuk nire adiskide Txanabane-ri. Denok dakigun kontua izango da, noski, baina oso on egin zidan entzuteak. Batzuetan, pertsonok argudio berberak behin eta berriro esan edo entzun beharra izaten dugu. Zer deritzozu?

**PJ:** Erabat ados nago. Jarrera da guztia, baina gorputza naturarekin lotzea ezinbestekoa da askatasun mota hori lortzeko.

**EN:** Bai, gorputzak inoiz ez baitu gezurrik esaten.

**PJ:** Ez horixe!

**EN:** Berriro diot: gorputzak ez du gezurrik esaten. Portugesez, “gogo” “mente” esaten da; *a mente* “gogo” da. Eta ‘gezurra esate’ aditzaren singularreko hirugarren pertsona berdin idazten da, *mente*, hau da, *a mente mente*-k esan nahi du “gogoak gezurra dio”. Gezurra esaten dugunean, autokontrol handia *izan* behar dugu gorputzak ez dezan sala egiten ari garen hori, hain zuzen ere eskolan emozioak menderatzen erakusten diguten bezalaxe, sentitzen duguna hirugarrenen aurrean ez erakusten eta gure gorputza, gure egia kontrolatzen, egia handi bat sortzearren gezur txikiak esaten erakusten diguten bezalaxe. *A mente mente*, gogo da engainatzen gaituena...

**PJ:** Horrela da.

**EN:** Gogoak gezurra esaten du... Gogo nahas dezaten uzten du, entitate konplexua da eta gatazka eta ego pila itzela du baitan. Gorputza beti aurrerantz ibiltzen da. Beharbada pertsona batek ez du beldurtu nahi izango egoera jakin baten aurrean, baina baliteke gogo beldurtzea, hark nahi ez badu ere, eta, egunaren amaieran, beldur-ikararen egongo dena ez da gogo izango, gorputza baizik.

**PJ:** Sarritan gorputza gogo bera baino askoz inteligenteagoa izaten da, zeren eta zuzenean hartzen baitu arnasa bizitzatik abiatuta.

**EN:** Arnasa hartu, bai, arnasa hartu behar dugu. Arnasa hartu, besterik gabe, ahal badugu behintzat. Hain da garrantzitsua arnasa hartzea... Zuhaitzek arnasa hartzen dute, ez diote arnasa hartzeari uzten, eta guk geuk ere etengabe hartzen dugu arnasa! Arnasa hartzen dugunean, airea trukutzen dugu elkarrekin. Nik ez dut hutsean sinesten: toki guztietan dago zerbait. Aire nonahikoa da. Airez inguratuak bizi gara. Beti airea arnasten ari gara, gure gorputzean sartzen, eta gero bota egiten dugu atzera kanpora. Batzuetan gerta daiteke nire gorputzean sartzen den airea, kanporatzen dudanean, zurean sartzea, berriro ateratzea eta ondoren hirugarren baten gorputzean sartzea. Hau da, guk zein gure inguruko pertsona guztiek airea trukutzen dugu elkarrekin, etengabe. Horrenbestez, une honetan nire birrikak betetzen dituen airea beste bilioi bat pertsonaren gorputzetik igaroko zen agian lehenago. Ez dakit lurra bilioi bat biztanle izan dituen, baina ezin ukatuzkoa zera da, beti-beti aire hori partekatzen ari garela, oxigeno hori, eta horrelaxe izan dela milaka eta milaka urtetan zehar. Ez dakigu botilatzen eta gordetzen. Gogoetarako gai ona izango litzateke, alajaina! Izan ere, ezbeharren bat dugunean, airea falta zaigula sentitzen dugu, eta une horretantxe hartzen dugu arnasa hartu behar dugulako kontzientzia. Aire ez da inoiz agortzen, eta doakoa da gizaki guztiontzat. Orain hemen dagoen aireak agian denboraldi bat egingo zuen Rio de Janeiron, han epeldu eta, ondoren, ozeanoa zeharkatzeko, latitude hauetan hoztearren. Eta aire hori berori da planetan bizi diren beste izaki guztiekin trukutzen duguna. Aire mugitu egiten da; ukitzen, musukatzen, miazten gaitu. Izugarri atsegin dut miaztearen, igurztearen eta besarkatzearen ideia. Uste dut besarkadak behar ditugula. Elkarrekin bizi gara, ez bakardadean. Azken batean pertsonak behar ditugu, zuhaitzak ere behar ditugun arren. Bizia dohain bikaina da. Zailtasunak eragin ditzake batzuetan, baina normalean zoragarria da. Saia gaitezen bizirik irauten eta bizi garen lekuaren izate sakratua eta leku horretan egiten duguna gehixeago errespetatzen.

Bilbo, 2013ko irailak 20

[Itzultzailea: Luis M<sup>a</sup> Larrañaga]